


**DISOZIAZIO ERREAKZIOAK: DISOZIAZIO-GRADUA edo DISOZIAZIO-MAILA (ALFA,  $\alpha$ )**

Erreakzioan errektibo bakarra dagoenean, KONPOSATU BAT, disoziatuko da erreakzionatu ondoren molekula txikiagoak lortzen badira. (Konposatua puskatzen da).



**DISOZIAZIO-MAILA ( $\alpha$ ):** Hasierako konposatuaren mol bakoitzeko disoziatu den mol kopurua. Normalean **ehunekotan** adierazten da.

**ESANAHIA.**  $N_2O_4$ -aren  $\alpha = \%20 \rightarrow \%20a$  disoziatu da  $\rightarrow N_2O_4$ -ren 100 mol-etetik 20mol disoziatu direla esan nahi du. Edo,  $\alpha = 0,2$  honek esan nahi du  $N_2O_4$ -ren **mol** batetik **0,2mol** disoziatu dela.

**KALKULOAK  $\alpha$ -REKIN**

a) Disoziazio-maila kalkulatzeko ariketa planteatuko dugu beti bezala  $x$ -aren funtzioan eta gero  $\alpha$  kalkulatzeko dugu.

	$aA(g)$	$\rightleftharpoons$	$cC(g)$	$+$	$dD(g)$
Hasierako molak ( $n_0$ )	$n_0$		0		0
Molen aldaketa ( $\Delta n$ )	$-ax$		$+cx$		$+dx$
Molak orekan ( $n_e$ )	$n_0 - ax$		$cx$		$dx$

**DISOZIAZIO-MAILA ( $\alpha$ ):** hasierako konposatuaren mol bakoitzeko disoziatzen den mol kopurua. Beraz,

$$\left. \begin{array}{l} A\text{-ren } n_0 \text{ moletatik } \rightarrow ax \text{ disoziatu dira} \\ A\text{-ren } 1 \text{ moletatik } \rightarrow \alpha \text{ mol disoziatuko dira} \end{array} \right\} \alpha_A = \frac{ax}{n_0}$$

$$\alpha_A = \frac{\text{DISOZIATZEN DEN MOL KOPURUA } (\Delta n)}{\text{KONPOSATUAREN HASIERAKO MOL KOPURUA } (n_0)} = \frac{ax}{n_0}$$

**EHUNEKOTAN adierazten da:**  $\alpha_A \times 100 = \% \alpha_A$

b) **Disoziazio maila ezaguna bada bi era daude ariketa planteatzeko:**

b.1) emandako  $\alpha$ -rekin,  $X$  kalkulatzeko eta planteamendua  $x$ -rekin beti bezala, egingo dugu.  $\alpha = \frac{\Delta n}{n_0} = \frac{ax}{n_0} \rightarrow X = \frac{\alpha n_0}{a}$

b.2)  $\alpha$ -ren eta  $X$ -aren arteko erlazioa erabil dezakegu molen taula planteatzeko:  $\alpha = \frac{\Delta n}{n_0} = \frac{ax}{n_0} \rightarrow X = \frac{\alpha n_0}{a}$  \*Taulan  $x$  ordezkatzeko dugu.

	$aA(g)$	$\rightleftharpoons$	$cC(g)$	$+$	$dD(g)$
Hasierako molak( $n_0$ )	$n_0$	$\rightleftharpoons$	0		0
Mol aldaketa ( $\Delta n$ )	$-\frac{a}{a} n_0 \alpha$	$\rightleftharpoons$	$+\frac{c}{a} n_0 \alpha$		$+\frac{d}{a} n_0 \alpha$
Molak orekan ( $n_e$ )	$n_0 - n_0 \alpha$	$\rightleftharpoons$	$\frac{c}{a} n_0 \alpha$		$\frac{d}{a} n_0 \alpha$

\*Nahasketaren mol kopuru totala orekan:  $n_T \text{ OREKAN} = n_0 - n_0 \alpha + \frac{c \alpha n_0}{a} + \frac{d \alpha n_0}{a}$